



Manuel
Estradaren
koadernoak

Diseinu
pentsamenduaren
arrastoa

Bilbao
Bizkaia

D Week

Bilbon egingo den «Bilbao Bizkaia D Week 2015» dela eta, **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak**, «ehukultura»ren bidez, bat egin du ekimen horrekin, eta hainbat jarduera antolatu ditu (erakusketa, hitzaldia eta workshopa). Jarduera horien helburu nagusia diseinu grafikoa zabaltzea da, gure inguruko kultura sorkuntzaren oinarritzko balio gisa eta gure iruditeria kolektiboari egindako ekarpen gisa. Hori guztia erakusketa eta praktika uztartuz egingo da, **Manuel Estrada** diseinatzailearen sorkuntza prozesua oinarri hartuta. Munduan den erreferente nagusietako bat, diseinu grafikoaren arloan.

Ekimen honek hasiera emango die «ehu**Diseinuaren campusa**» proiektuan aurreikusitako jardueri.

ehu**Diseinuaren Campusa** unibertsitateak ezagutza sortzeko eta transferitzeko duen berezko konpromisotik sortu da, eta unibertsitate kultura hedatzeko jardueren gune gisa eratu da. Jarduerak, bereziki, diseinu grafikoaren arloan kokatzen dira, baina horri lotutako beste sorkuntza diziplina batzuei begira daude. UPV/EHUko Bizkaiko Campusak diseinuaren irakaskuntza eta ikerketa arloa zabaldu nahi du, herritarrengandik gertu egoteko, aldian behingo lantoki egonkor baten bidez, zeina **Bizkaia Aretoa** eraikinean kokatuko baita, hau da, UPV/EHUK Bilbon duen egoitzan.

Manuel Estrada

www.manuelestrada.com

ehukultura

www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia

ehuDiseinuaren Campusa

www.ehu.eus/web/tipografia/ehu-diseinuaren-campusa

Bizkaia Aretoa UPV/EHU

Abandoibarra, 3 · 48009 Bilbao

www.ehu.eus/bizkaia-aretoa

Erakusketa

Diseinu pentsamenduaren arrastoa

Manuel Estradaren koadernoak

Bizkaia Aretoa UPV/EHU
Chillida aretoa, Bilbo

Erakusketa 2015eko
azaroaren 12tik abenduaren 4ra
08:00-20:00
Sarrera doan

Erakusketaren inaugurazioa
Azaroak 12
19:00etan

Hitzaldia

Nola sortzen dira ideiak

Diseinuaren dialektika

Manuel Estrada

Bizkaia Aretoa UPV/EHU
Baroja aretoa, Bilbo

2015eko azaroak 16
18:00

Sarrera doan
Etortzeko asmoa edukiz gero, baieztatu hemen
www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia

Erakusketan, elkarrizketa bisual bat proposatzen da amaierako diseinuen, collage zatituen, bat-bateko marrazkien eta obra «amaigabeen» artean, eta agerian geratzen da egungo diseinuak ezin diola uko egin marrazkiari, proiektatzeko jardueraren funtsezko osagai gisa.

Manuel Estrada beti dabil koaderno txiki bat altzoan duela; hantxe idazten ditu ideia guztiak, han marraztu, idatzi edo ebaki, eta han itsasten ditu bere diseinu kontzeptuak, askotariko materialekin.

Estradaren koadernoak testu eta ikusmenaren bidez adierazitako pentsamenduaren erregistro bat dira; euskarri bat, memoria kanporatzeko; ideien eta informazio agiritegi bat; leku bat, eguneroko inspiraziorako; egunkari pertsonal bat eta, aldi berean, gogoetarako espazio bat, sortzen ari diren ideien haziak jasotzeko eta marrazketa sortzaile eta komunikatiboan bitartez irudikatzen.

Haren orrialdeetan barrena nabigatzean, erdizka ikus dezakegu diseinatzailearen pentsamenduaren eta ideien arrastoa.

Ideien arrastoa, lehen zirriborroetatik ia amatuta dauden proiektuetara.

Hitzaldia diseinatzaileak bere lan koadernoan planteatutako galderei eta jasotako balizko erantzunei buruz izango da.

Workshop **Lan koaderno** **Diseinu ekintzarako** **«hub» bat** *Tailerra, Manuel Estrada* *diseinatzailearekin*

Bizkaia Aretoa UPV/EHU

Elhuyar aretoa, Bilbo

2015eko azaroak 10-11

09:30-14:00 / 16:00-19:00

Doako asistentzia

Izen-emate eskariaren onarpena

beharrezkoa da

tipografia@ehu.eus

Diseinatzaileen lan koadernoak, artisten koadernoak ez bezala, lan tresna bat dira, non ia informazio osoa agertzen den, inspirazioaren materialak biltzen diren edo bilerak apuntatzen diren. Hala, koaderno diseinu prozesuaren elementu garrantzitsu bat da; diseinu ekintzaren «hub» bat; espazio bat, ideiak hausnartzeko, sortzeko, lotzeko eta komunikatzeko.

Zeregina: lan koaderno bat garatzea, tailer batean, eta Bilbo hiriarri lotutako zeharkako bi proiektuekin zerikusia duten ideiak, gogoetak eta marrazkiak bertan jasotzea. Landu beharreko edukia diseinu kontzeptu batean oinarrituko da. Hartara, parte hartzaileak koaderno batean egingo du lana, eta horren emaitza gogoeta bat izango da ideia berriak sortzeari, lotzeari eta gauzatzeari buruz. Gero, emaitza hori komunikatu beharko da, gainerako parte hartzaileen aurrean.

Izena ematea: Workshopperako parte hartzaileen kopurua mugatua denez, izena emateko sistema hau ezarriko da:

Azaroak 4: izena emateko eskariak igortzeko azken eguna. E-posta bat bidaliko da tipografia@ehu.eus helbidera, honako hau adierazita:

Izen-abizenak / Lanbidea edo titulua / Posta helbidea / E-posta / Telefono zenbakia/ Curriculum laburra (gehienez, 300 karaktere espazioekin), non adierazi daitezkeen: egindako ikasketak, lan esperientzia, erreferentziako webgunea, egungo egoera, interesak...

Azaroak 5: onartutako eskaerei erantzungo zaie .

Erakusketa

*Diseinu pentsamenduaren
arrastoa*

*Manuel Estradaren
koadernoak*

Hitzaldia

*Nola sortzen dira ideiak
Diseinuaren dialektika*

Manuel Estrada

Workshop

Lan koadernoak

Diseinu ekintzarako

«hub» bat

*Tailerra, Manuel Estrada
diseinatzailearekin*

Bizkaia Aretoa UPV/EHU
Abandoibarra 3, Bilbao

Informazio gehiago

ehuDiseinuaren Campusa
www.ehu.eus/web/tipografia
tipografia@ehu.eus

BILBAO
BIZKAIA

D

WEEK
2015



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ehukultura
Bizkaia

ehuDiseinuaren
Campusa

BiDC  **BILBAO BIZKAIA**
DESIGN COUNCIL